

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA:
ANTOLOGIA

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA. ANTOLOGIA

Bilbo, 2000-III-02

*Juan Jose Arrieta,
Euskadiko Kutxa-ren zuzendari nagusia*

Euskadiko Kutxan oso pozik gaude Euskaltzaindiarekin batera mahai eta proiektu honetan elkarren ondoan gaudelako.

Proiektu honen inguruan Jose Luis Lizundiarekin izandako lehenengo solasalditik gaur arte, hau da, lanaren emaitzak euskal gizarteari aurkeztu eta eskaini zaizkion unera arte, gure kulturari eta, bereziki, gure hizkuntzari ekarpen handia dakarkiolako Euskadiko Kutxan adi-adi baina, era berean, oso sinetsita egon gara proiektuarekin. Hain zuzen, igarotako denborak arrazoia eman digu, Euskaltzaindia eskaintzen ari zaigun hau ederra bezain mardula baita.

Ederra dela diogu, alde batetik Entitate egileak bereganatua dauzkan kalitate –eta seriotasun– bermengatik eta, baita, lana garatzeko burutu duen ikerlan zehatz eta zorrotzarengatik ere: ehun eta berrogeita bost (145) udalerrikan eginiko inkestak, sei urteko ikerlanak (laurogeita seitik laurogeita hamabira (36tik 92ra)), Euskal Heri zabalean 4.000 grabaketa-orduko lana eginenez. Eta ederra, bestetik, euskararen ohiko formen antologia honi esker, ahozko euskarak balio erantsi gisa berea duen balio handiko ondarea jaso eta zabaltzen delako. Izan ere, hau guztia beharrezkoa da bihar-etziko iraunkortasun eta garapena ziurtatzen duen nahitaezko berdintasuna lortzeko, behin betiko lausotu eta galdu ez dadin.

Bitxia da oso, duela 23 urte, Euskaltzaindiarekin betidanik izan ditugun harreman sendoen esparruan, elkarlanean argitaratutako *Euskararen liburu zuria* izeneko aspaldiko lan hartan euskararen erabilera gizarteratzeko beharra azpimarratzen zen, bertan hizkuntzaren normalizazioaren alde mintzatuz.

Gaur, ia 25 urte beraduago, gure hizkuntzaren ahozko transmisioak dituen kolore, forma eta musika desberdinak zabaltzen eta hedatzen lagundu nahi izan dugu.

Gaur egun, ez dago horren daudarik, gizarte-normalizazioan bizi izan dugun prozesu honetan euskalki, azpieuskalki eta ahozko formek elkarrekin bizi behar izan dute idatzizko hizkuntzaren beharrezko batasunarekin.

Euskadiko Kutxatik, gure Entitatearen sorrerako printzipioekin bat etorritik, saiatu gara normalizazio-ibilbide horri ekiten ere.

Horrela, lehenxeago aipatu dudan hirurogeita hamarrekoko hamarkadan (70eko), Lan Kide Aurrezkiak bazuen euskara sustatzeko sortutako sail edo departamentua, ikastolen eraikuntza lagunduz, euskararen aldeko proiektuak bultzatuz ... (hala nola, hirurogeita hamazapiko (77) euskalduntze-kanpaina, edo ta duela gutxi *Euskal Kultura Gaur* izenarekin kaleratu den orduko *Euskal Idazleak Gaur* gisako argitalpenak, edo euskarazko udako ikastaroak gogora elkartzeagatik).

Egun hauetan ere, hamaika proiektu eta ekimen ditugu esku artean, batean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarekin, bestean jaioterri berri samarra izan arren euskal udalerrien lan-antolamendurako garrantzitsua den UEMArekin, Kontseilua, UZEI, Elhuyar edo beste erakunde eta proiektu batzuk ahaztu gabe.

Ekitaldi honen bitartez bultzatzen ari garen gisako ekimenekin, gure euskararen aldeko konpromisoari eutsi nahi diogu. Aipatutako *Liburu Zuria* argitaratu zen unean Erakunde, Administrazio eta Politikan zuen babesik gabeko baldintzetan ez egon arren, orain ere euskarak, bere etorkizuneko horiek bezain garrantzitsuak diren erronka teknologiko eta globalizatzaleei aurre egin behar die.

Orainsu Jesus Altuna antropologoak adierazten zuen bezala, gure arbasoengandik aberastasun ugari eta oso desberdinak jaso ditugu, baina horiek guztietatik, euskara baino ez dugu bizirik gaur egun. Bere sustraiak Harri Aroan dituen hizkuntza izanik, Internet Aroak dakartzan komunikabide eta harremanen iraultzaren baitan biziki txertatu behar dugu gure hizkuntza.

Baina hori lortu ahal izateko, daukaguna zabaldu egin behar dugu, era askotakoak diren bere forma eta ñabardurekin, hedatuz eta zabalduz hizkuntza garatu eta berregingo dugulako. Izan ere, askotan entzun dugun bezala: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik". Horregatik, parekorik ez duen altxor hau estalgabetuz, ekin diezaiozun denon artean garatu eta bultzatzera.

Eskerrik asko lan hau bideratu duzuen guztioi eta eskerrak ere zuei zuen arretagatik.

OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN ANTOLOGIAREN AURKEZPENA

Bilbo, 2000-III-02

*Beñat Oihartzabal,
Dialektologia batzordebua*

Plazer handia da enetzat egun euskal mintzamoldeen antologia honen aurkenpenaren egite eta bihotz-bihotzez eskerrak bihurtu nahi dizkiot lan honen argitaratzea bere gain hartu duen Euskadiko Kutzari.

Aspaldi du orain, hamahiru edo hamalau urte, hasia dela talde bat Euskaltzaindiaren gerizapean euskal hizkuntza atlasaren egiten. Euskalari askoren aspaldiko asmo eta amets bat izan da euskararen atlasa, Frantzian eta Alamanian horrelako lanak mendearen hastapenean agertzen hasi zirenez geroztik. Urkixok aipatu zuen 1918ko Oñatiko euskal batzarrean, bai eta Menendez Pidalen ere, Bilbon 1921ean egin zuen hiztaldi batean. Hala egin dute geroztik euskalari guztiek, bai R. Lafonek, bai berrikitanago, K. Mitxelenak ere.

Zorigaitzez mende nahasia eta gogorra izan da hogeigarrena euskaldunentzat eta mota horretako asmorik ezin obratu ahal izan da luzaz, 1980ko hamarkadan aro berri bat irekitzearekin bakarrik bihurtu baita berriz solasgai eta egingai aspaldiko asmo zaharra, Euskaltzaindiak ondoko urteetan, Hegoaldeko erakunde publikoen laguntzari esker bere gain hartuko zuena.

Hats luzeko eta hedadura handiko lana da euskararen hizkuntza atlasa, hoko euskara bizik egon den eremua estalirik 145 herritako hizkeretan oinarritua, inkesta leku bakoitzean 2800 galdera baino gehiago eginez eta orotara lau bat mila ordu grabaketa bildurik.

Esperantza dut laster plaza betean izanen dugula, orduan ere Euskadiko Kutxa laguntzarekin, hizkuntza atlasaren lehen mapa liburua eta CD-ROMa, hartan aurkituko baitituzte ikertzaileek aztergai balios paregabea.

Baina arte horretan egoki iduritu zaio Euskaltzaindiari ikerketarientzat eginikako lan haren ondoan, beste bat, publiko zabalago bati buruz egina, eskaitzea, euskaldunei erakusteko, gure hizkuntzaren eguneratzea, batzea, jantzea eta jauntzea ezin baztertuzko egitekoa badugu, ez ditugula horregatik ahan-tzi behar ohiko mintzamoldeak, euskara mendez mende haietan bizi izana baita gaur egun arte.

Bat-bederak badaki zein urrun diren elkarretarik euskaldunek darabiltzaten mintzamoldeak. Hala erran zuen Leizarragak berak ere, duela lau ehun urte baino gehiago, zioelarik *etxe batetik bertzera* aldatzen zirela euskaldunen hizkerak. Hala zen 16. mendena, hala-hala da oraino, antologia honek erakusten digun bezala.

Ez naiz ni, eta ez da Euskaltzaindia, hizkuntza desberdintasunak deitortzen dituztenetarik, nahiz, bestalde, inor gutik uka lezakeenegungo egunean behar orduan eta behar direnetarako beharrezkoa del ahizkuntza desberdintasunen gaintzea. Bietarik behar dute hizkuntzek, behar du euskarak ere: bai hitzun guztientzat eta erabilpen jasoenenentzat ere balio duten ororen mintzamoldeak, estandarrak edo deitzen direnak, bai eta halaber etxe barnean, lagunen artean, auzoan, karrketan, baliatzeko, tokiko harrien eta jendeen soina eta kolorea atxikitzen duten hizkerak, bere berezko itxura aniztasunarekin.

Antologia honek hiru osagai ditu: lehenik, entzutekoa denaz gero, baditu disko trinkoak, soinu irakurgailu arrunt batekin nohai orain entzuteko modukoak, musika eta kantua entzuten den bezalaxe. Diskoekin batean banatzen den liburuan, aurkitzen dira, minutu eta erdiko entzungaien traskripzioak, irakurlearen laguntzeko eginak.

Hori zen hastapeneko proiektua. Haatik, lana azken urratsetan zegoelarik, diskoen prestaketa bere gain zuen A. Unzalu, aurtan bai Fundazioko buruak proposatu zigun, antologia honen aberasgarri, hirugarren atal bat gaineratzea, aurreko biak bateratzen zituena euskarri bakarrean. Horrela egin da bosgarren disko bat, ez soilik entzutekoa hau, baina CR-ROM gisakoa, hartuan konputagailu bat erabilirik, testuak ikusi eta denbora berean entzun baitaitezke. Ez da dudarik arras ideia ona izan dela hori, ezen gero eta gehiago dira konputagailuak etxeetan eta ikastetxeetan, eta erabilera erosoa da.

Bukatzeko, eskerren emateko, aipatu nahi nituzke lan honen egile, zerbait gisaz, izan diren guztiak:

– Lehen-lehenik herrietako informazio emaileei, beren denbora eta pazientzia, askotan jakituria ere, euskararen Ikerkuntzaren onetan eskaini baitute, baina hemen sobera izanik izen-deiturekin bederazka ezin izenda ditzakegunak;

– Inkesta-egileak gero, azkenean haien lanean oinarritzen baita gaineratitakoa, horiek izan baitira: Isaak Atutxa, Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Bidegain, Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste eta Koro Seguroa.

– *Antologiako* testuen aukeratzaillei eta transkribatzailei: Pello Agirre eta Xarlex Bidegain.

– Argitalpena bera kudeatu duena: Rikardo Badiola Uriarte.

– Eta hondarrean aipatzen dudana, baina ez merezimendi gutiena izan duelakoan, zeren asko zor izanen baitio Euskararen Atlasak haren informatika lanari, CD-ROMaren eta disko trinkoa teknikoki egin dituen, Andoni Unzu, Aurten Bai Fundazioko burua.

Azken esker oneko hitza izan bedi Euskadiko Kutxako buruzagientzat, egitasmo horren garrantzia ulerturik, jantzi ezinago dotoretan beztiturik plazara ekartzera lagundu baikaituzte.

**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA.
ANTOLOGIA**

Bilbo, 2000-III-02

*Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea.*

Encargado del Servicio de Publicaciones

(ANTOLOGIAreko prentsaurreko eta aurkezpenarekiko eranskina)

Caja Laboral/Euskadiko Kutxa
Gran Via, 2, 2^a BILBO

PARTAIDEAK

A) Caja Laboral / Euskadiko Kutxa:

1. Juan Jose Arrieta, zuzendari nagusia / Director General.

B) Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca:

1. Jean Haristchelhar, euskaltzainburua / Presidente.

2. Beñat Oihartzabal, euskaltzain osoa eta Dialektologia batzordeburua / Académico de número y Presidente de la comisión de Dialectología.

* * *

Isaak Atutxa, Atlasgintza batzordekidea / Comisionado del Atlas lingüístico.

* * *

Andoni Unzalu Aurten Bai Fundazioburua / Presidente de la Fundación Aurten Bai.

Aurkezpenera etorritakoak:

Goizean Euskal Herrian zehar prentsa idatzia, telebistak, irratiak zenbait aldizkari eta abarrek parte hartu dute. Arratsaldean, berriz, Euskaltzaindiko egoitzan, zenbait kazetari izan diren arren, beste zenbait Erakunde, Unibertsitate, Kultura elkarte, Aldizkari-arduradun eta abar izan dira, hots:

A) Euskaltzain osoak:

Henrike Knörr, euskaltzainburu ordea, Patxi Goenaga, idazkaria, Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

B) Euskaltzain ohorezkoak: Xabier Gereño

C) Euskaltzain urgazleak:

Federiko Barrenengoa, Iñaki Gaminde, Jose Luis Lizundia, Juan Luis Goikoetxea, Juan Jose Zearreta, J. Manuel Etxebarria, Patxi Uribarren, Ricardo Badiola, Sebastián Garcia Trujillo, Serafin Basauri.

D) Euskaltzaindiko Atlasgintza azpibatzerdekoak: Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola.

E) Erakundeak-Instituzioak- Elkarteak:

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza Sailak, Bizkaiko Ikuskaritza Inspektzioa, Basauriko Ikuskaritza, Begoñako Andra Maria Irakasle Eskola, PAT 10, 11 eta 12, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Caja Laboral / Euskadiko Kutxa, Labayru Ikastegia, Bizkaiko Foru Diputa-



zioko Kultura Saila, Mendebalde Kultur Alkartea, Giltza argitaletxea, Zabalzen-Elkar: argitaletxe-batzaileak, Euskal Idazleen Elkartea, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala, Bitarte banatzailea, Lauro Ikastola, Euskal Museoa, Eibarko Udaleko Euskera batzordekoa, EBBko Hezkuntza eta Kultura eremua, *Pirineos* aldizkaria, *Aizu* aldizkaria, *IRALE*; Bostak Bat lantaldekideak, Kukuma liburudenda, Verdes, Lauaxeta liburudenda, IKA itzulpengintza, Hori-Hori itzulpengintza, Bizkaiko AEK, Bizkaiko Diputazioko itzulpengintza, Makua aholkularitza, Gabriel Aresti Euskaltegia, Ulibarri Euskaltegia, Bilbo Zaharra Euskaltegia, Bilboko zenbait ikastetxe: Botica Vieja, Emilio Campuzano, IVAD, San Adrian, Errekaldeberri, Txurdinaga, Miguel de Unamuno, San Inazio, Ibarrekolanda, Txurdinaga-Artabe, Zurbaran, Zorrotza, Ibaizabal, Ignacio Ellacuria, Martin de Bertendona, Felix Serrano, Elorrieta-Errekamari, Karmelo Ikastola-Solokoetxe, Luis Briñas-Santutxu, Ikastolak: Karmelo, Deustu, Intxixu, Urretxindorra, Kirikiño, Karmen, Begoñazpi, Artxandape, Abusu...

F) Partikularrak: Lutxi Alberdi, Pello Telleria, Jon Artza, Pruden Gartzia, Emilio Porras, Amaia Okariz, Ikur-Rontegi fotokonposizio-inprimategiko ordezkariak, Jon Aurre, Jon Otaegi, Juan Cid, Isidro Elezgarai, Andoni Unzalu, Belen Itza, Amaia Basterretxea, Serafin Basauri, Imanol Agirre, Iñigo Gago, Jon Artatxo, Patxi Galé.

OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN ANTOLOGIA

Bilbo, 2000-III-02

*Isaak Atutxa, Atlasgintza lantaldekoa
eta liburuki honen paratzailea*

Gaur aurkezten dugun Ohiko Euskal Mintzamoldeen ANTOLOGIA hau 1986 eta 1992 urte bitartean Euskaltzaindiak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) egitasmorako bildu dituen dokumentuetan oinarritua da. Dokumentuon artean, aipatu urteotan zehar euskararen eremuko 145 herritan egindako grabaketak ditugu. Grabaketa horiek milaka orduko hizketaldiak eskaintzen dituzte eta denak dira CD-ROMetan bilduta eta Euskaltzaindian gordeak.

Ildo honetatik, euskal mintzairak dituen itxura desberdinak entzun nahi lituzketenak gogoan, egoki iruditu zitzaion Euskaltzaindiari euskaldunei ohiko euskal mintzamoldeen antologia modukoa moldatzea.

EHHA egitasmoaren beraren helburua guztiz bestelakoa izaki, antologia hau euskaldun guztientzat egina dela esan behar da. Ez da ikerketak edo euskalkien azterketak egiteko, euskararen berezko musika guztiak entzun eta eza-gutzeko baizik. Helburuak aipatu ditugula eta, derragun antologia honek ahalik eta eremu zabalenera heldu nahi duela: ikastetxe-ikastoletara, irratietara, etxeetara, e.a.


Argi utzi nahi dugu, bestalde, antologia hau entzutekoa dela. Horrela, lau disko konpakto, CD-ROM bat eta hauen lagungarri izan nahi duen testu liburu bat aurkezten dira. Hiru baliabideok daude berdintsu egitarauak. Mendebaldetik hasi eta Hegoalderantz zazpi herrialdeetako pasarteak bildu dira: Bizkaian, 36 tokitakoak; Araban, batekoak; Gipuzkoan, beste 36koak; Nafarroa Garaian, 27takoak, Lapurdin, 15ekoak, Nafarroa Beherean, 18takoak; eta Zuberoan, 12takoak, herri bakoitza kokatzeko EHHAren egitasmoaren ordena jarraitu dugularik.

Lehen lau diskoak entzuteko disko konpaktoak ditugu, edozein musika tresnan entzuteko modukoak, beraz. Lehen konpaktoan, Bizkaiko eta Arabako pasarteak entzun ahal dira; bigarrenean, Gipuzkoakoak; hirugarrenean, Nafarroa Garaia eta Lapurdikoak; eta laugarrenean, Nafarroa Beherera eta Zuberoakoak Entzuleak gogoko duen diskoa musika tresnan sartu eta berehala izango du herri honetako edo hartako soinuak dastatzeko aukera. Herri bako-

tzaren izena eta entzungaiaren aurkezpena dira entzuleari helduko zaizkion lehenak; jarraian, dagokion pasartea.

Bosgarren diskoari, CD-ROMari dagokionez, hasiera batean audio diskoak aurkezteko asmoa baizik ez bazen ere, bizi dugun teknologia berrien aro honek beronek bultzatu duela esan behar. CD-ROMa erabili ahal izateko ordenagailuan Internet Explorer edo Nestcape behar dira. Grabaketak entzun ahal izateko, bestalde, MP3 fitxategiak irakurtzeko programa behar da, CDan bertan aurkitu ahal dena.

CD-ROMeko programan martxan jarri eta agertuko zaigun lehena aurkezpen pantaila izango da. Jarraian, eta bigarren batean, menu orokorra aurkituko dugu. Bertan herrialde bakoitzean sartzeko aukera ematen zaigu Behin sartuz gero, inkesta leku bakoitzeko testu orrialde bat agertzen zaigu. Orrialde bakoitzak zati hauek ditu: grabaketa egin den udalaren izena, entzungaiaren aurkezpena, testu transkribitua eta hitz azalpenak. Testu transkribatua dugu bitartean, entzun ere ahalko dugu.



Testu liburua, bestalde, entzulea laguntzeko prestatua da. Gure rrintzaira aurpegi askokoa da eta batzuetan zail egiten zaigu horiek ulertzea, beren tes-tuinguru orokorretik atereak diren urruneko solasak direnean bereziki. Liburuaren mamiari, edukiari eskaini nahi dizkiot azken hitzak. Kontuan izan be-har da entzuleak, herri bakoitzeko, minutu eta erdiko saioak aurkituko dituela; are, hizketaldiok ez ziren gisa horretan baliatuak izateko grabatu. EHHAera-ko inkestak egin eta zenbait urte igaro ondoren aukeratu pasarteak dira; ho-rren ondorioz, maiz nabari da erdi-moztuak bezala direla. Bestalde, solasgaie-tan batasunik ez izanik, zail gertatuko zaio batzuetan entzuleari pasarteen gaiaz jabetzea. Liburuaren laguntzarekin, ordea, bizpahiru aldiz entzun eta gero, pa-zientzia piska batekin, ulertu ahalko dituzte entzuleek. Dena den, gogoratu be-har da hemen garrantzia mintzoak berak duela, ez solasaren mamiak, asko-tan hau ere oso interesgarria bada ere (adi, esaterako, Elantxobeko gerla garaiko kontuari, Urretxuko Santa Kruz apaizari buruzkoari, Gaintzako txin-gurria eta txantxangorriari buruzko ipuinari, Urketako sugeak behia egoskiten duenari, Bidarraiko Parmentier jaunarenari, Altxürüküko khurloen gertakaria-ri eta hainbat eta hainbat kontakizun eta pasadizori, denak ere ahozko euska-raren kolore eta aurpegiak ezagutzen lagunduko digutenak). Zalantzarik ez.



ANTOLOGIA DE FORMAS LINGÜÍSTICAS

La *Antología* que ahora presentamos ha sido elaborada en base a la documentación que Euskaltzaindia ha recopilado para la elaboración del Atlas Lingüístico del País Vasco. No es, sin embargo, una antología dirigida en exclusiva a estudiosos de la lengua vasca; es una antología dirigida a todos los amantes del euskara, para poder, de este modo, saborear y conocer las diversas melodías que nuestra lengua posee.

Esta *Antología* se compone de cuatro discos compactos, formato audio: en el primero de ellos podemos escuchar fragmentos de las entrevistas realizadas en Bizkaia y Alava; en el segundo, de las realizadas en Gipuzkoa; en el tercero, de las de la Alta Navarra y Lapurdi; y, por último, en el cuarto, de las de la Baja Navarra y Zuberoa. Tenemos, además, un quinto disco compacto, ésta en versión multimedia, para ordenadores personales. Pero, como a menudo nos encontramos con conversaciones sacadas de contexto, con el fin de ayudar al oyente, publicamos un libro en el que aparecen todas y cada una de las grabaciones que encontramos en los discos compactos.

Con esta *Antología* se podrán escuchar en cualquier rincón de nuestro territorio (escuelas públicas, ikastolas, medios de comunicación, nuestros propios hogares, etc.) los diferentes tipos de habla con los que nuestra lengua se enriquece.

**OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN
ANTOLOGIA-REN AURKEZPENA**

2000-III-02

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Juan Jose Arrieta Euskadiko Kutzako zuzendari nagusi jauna,

Euskaltzainkideak,

Jaun, andereak, egun on!

Azkenik hartzen dut hitza aurkezpen berezi honen egunean, berezia diot zeren ene ustez lehenbiziko aldikotz lotuak baitira hotsa eta idazkia, entzun eta ikus daitekela denbora berean eta hori euskalkien hobeki ulertzeko.

Aldi bat baino gehiagotan entzuna izan da boz apalez azaltzen den zurumurrua : euskaltzaindiak euskara batua bultzatuz euskalkien kontra jokazen dela, euskalkien hiltzen ari dela.

Egun, hemen zareten andereek eta jaunek, kazetariak bereziki entzun eta ikus dezakezue hori ez dela egia. Argi dago eta hemen lekuko zarete Euskaltzaindiak laguntzen dituela euskalkiak eta egin, egiten eta eginen duela euskalkien alde nehork egin ez duena.

Bere mintzaldian Beñat Oihartzabal, Dialektologia batzordeko buru denak, aipatu du Julio de Urkixok zioena eta lehenbiziko euskaltzainek beren xedetan sartu zutena: euskal hizkuntz Atlasaren beharra. Duela 80 urte aipatua izan zen Atlasa nork egiten du? Gure belaunaldiak, hala nola gure belaunaldia agertzen ari den *Orotariko Euskal Hiztegia*, hamabigarren liburukian dagoela, hala nola gure belaunaldiak aztertzen duen euskal gramatika, bortzgarren liburukia berrikitan kaleratua, kontutan harturik ere Onomastika batzordeak eta Literatura batzordeak egiten duten lana. Luzaz lan ixilean arizantik, orai Euskaltzaindiak agertzen ditu etekinak eta, hain zuzen, gaur aurkezten dugu bertze bat.

Atlasari lotua zaio *Ohiko euskal mintzamoldeen Antologia*, Atlasaren ondorioetarik bat baita. Inkestak eginik Euskal Herriko 145 herritan, hautatu le-

kukoak 2800 galdeeri erantzunik, utzi dute inkestagileek mintza zadin lañoki, goxoki, berak hautatu gaiaz. Asma dezakezue zer altxor bikaina bildu duen Euskaltzaindiak, ahozko altxorra, 1985 eta 1990 arteko euskalkiak agertzen dituen, beren musika eta koloreekin. Herri bakoitzeko zatitxo bat hartuz hona beraz euskal mintzamoldeen antologia, euskararen arnasa bere berezitasun guzietan.

Pentsatzen dut aurten aurkeztuko dugula Atlasaren lehenbiziko liburukia. Prest dago eta erdia ordaindua balin bada Euskadiko Kutzari esker, bertze erdiaren ordainketaren zain gaude. Agertuko delarik konturatuko da jendea zein seriooki, zein zientifikoki jokatu den Euskaltzaindia, bilduz inkestagile jakintsunak, haien artean unibertsitateetako erakasleak. Ez balitz hala jokatu Euskaltzaindia ez zen Atlasik izanen : argi eta garbi erraiten dut hori.

Beraz, nik orain, Beñat Oihartzabalek egin duen bezala, nire eskerrik be-roenak bihurtuko dizkiet Atlasean eta Antologia honetan lan egin duten guziei, ahantzi gabe lekukoak oraindik bizi direnak eta jadanik zenduak hala nola enz-un dugun, ezagutzen nuen Baigorrikoa.

Eskerrak ere merezi ditu Andoni Untzalu-k. Uste nuen Antologia lau CD-tan bildua izanen zela, liburua laguntzaile, bainan orai bertan jakin dut CD Rom bat aurkeztzen dela, hori izan dela Andoni Untzalu-ren ideia, ideia ona dudarik gabe. Antologiari esker, bere CD eta CD Rom delakoekin urrats handi bat egiten da euskalkien ezagutzeko eta ikertzeko. Denek badakigu ez dela hain errex ulertzea zuberotar bat, Barkoxtarra adibidez, Bizkaitar batentzat. Orai hor dauka Barkoxtarraren boza eta ondoan idatziz emana zer erraiten duen. Berdin izanen da bizkaiera Lapurtar batentzat. Denek ukan dezakete Antologiarekin tresna baitezpadakoa euskalkien aztertzeko.

Lan dorpea eta luzea izan da *Antologiaren* egitea. Eskerrak, beraz, bereziki Isaak Atutxa-ri lana bururatu baitu behar den bezala eta halaber Ricardo Badiola, Euskaltzaindiko argitalpen eragileari.

Beñat Oihartzabal-ek eskertu ditu Atlasean eta *Antologian* murgildu diren guziak, nehor ahantzi gabe. Bat ahantzi du, bera, eta, beraz, nik beteko dut huts hori. Beñat Oihartzabal, iker sailburua da eta Atlasaren arduraduna. Frantziako C.N.R.S.-eko kide izanez, katedradun mailako karguarekin, Atlasa kudeatzen du eta *Antologia* honekin erakusten du zein ongi deraman bere eta bere kideen lana. Zinez, Antologia lehenik eta Atlasa gero urrats handiak dira eta izanen dira euskararen euskalki guzien ezagutzeko.

Orain, zuri mintzo natzaizu, Juan Jose Arrieta jauna, Euskadiko Kutxako burua zaren horri. Aipatu duzu zure mintzaldian duela 25 urte elkarrekin lanean ari ginela eta, hain zuzen, gure elkarrekilako lehenbiziko lana *Euskararen liburu zuria* izan zen, liburu ederra, balio handikoa. Antologia honetan, erakusten da nola aldatu den garaia, nola liburutik bagoatzin bertze zerbaite-

tara hotsa eta idazkera nahasiz, tresna berriak baliatuz, CD delakoak eta ordenagailuaren bitartez CD Rom-a.

Euskadiko Kuxari esker agertzen da *Antologia* eta badakit segituko eta sendotuko ditugula harremanak bihar atzo bezala Atlasarekilan. Euskadiko Kuxari eta zuri bereziki Euskaltzaindiaren izenean eskerrik asko bihotz-bihotzetik.